

**BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
32n. ZENBAKIA  
ORRILLA  
— 1980 —**




**Oliba'ko Lekaide-Etxea  
Euskalerriaren Bazterrean  
Naparroa'ren Barruan**

# Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

*Coupe en nosotros*

*Zenue urtea gurean*



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO  
BILBO AURREZKI KUTXA**

# **IRUGARREN**

# **LENDAKARIA**

Berrogei ta lau urte oneitan, guda kaltegarria sortu zanetik, Euskalerrriak izan dauan atzerakuntzea eta oiñen aurrean zabaldu jakon zulo bildugarria bardindu dira.

Barrero be Euskaldunok Lendakaria daukagu, III Lendakaria.

Egia esan, «Euskaldunok» diñogunean, barruak laster diñosku: «Egoaldekoak», «Naparroa» barik!

Eta, zori txarrez, gaurkoz orrelan dala ezin ukatu, baiña gauzak aurrera doaz eta arazo mingor ori be, astiro-astiro, bideratuko da.

Euskalerrriko alderdiak, «Herri Batasunaren barruan diranak izan ezik, Gernika'ko aritzaren ondoan batu ziran, Erriari begira, gogotsu, gure arazoai urtenbidea billatzeko gurari biziak.

Egun aretan, inguruko arri zarrak eta zugatz zarrak be berba egiten ebela esan zeitekean: Kondaira zarraren bideratzea ta aurrerapena inguruko usain berezi lez asmatzen ziran.

Lendaka-ri-gaiaren berbaldia: Argia, arduratua, itxaropentsua, larregi zeaztu-bakoa ta bide-erakuslea

Beste alderdietakoen eragozpenak eta kontu-eskatzeak, naikoa itzaltasunez eta gogo onez egiñak.

Eta, banan-banan, astia egoan neurrian, emon jakezan erantzun zorrotzak eta ausartak.

Legegilleen artean izaten diran goraberetarako gertatuak garala erakutsi eben Euskalerrriko agintari-gaiak.

Austeskudea urrengo.

Atagai bakarra zan azkero, baietza edo ezetza emotea zan naikoa, eta bigarren ekiñaldian, argi-argi eta aurretiaz iragarrita egoan lez, autarki baten aldeaz urten eban Lendakari barriak.

Eta gero ziña. Agirre'k esan zituan berbak eurak esanaz, baiña orduan baiño giro askoz obean.

Orduan guda ikaragarria asita egoan eta orain, aldi larriak izan arren, orduan baiño itxaropen geiagoz diardugu.

Gero, urteak geroago eta egoki zan baiño askoz geroago Leizaola'k esan zituan berbak eurak. Orduan oraindiño zapalkuntza gorriaren azpitik urten eziñik.

Egun garrantzitsuetan gagoz orain. Lendakari barriak jaurlarikide barriak aukeratzen diardu berak esan dauanez «margo bakarrek» jaurlaritze osotzeko.

Jaurlarikide guztiak alderdi batekoak izateak ba-dauko bere akatsa, zalantza barik: Indar guztiak ondo ez alkartzea.

Baiña beste alde batetik begiratu ezkero, eta Eusko Kontzeillu Nagusiak izan dituan egin-eziñak kontuan dirala, lanerako erreztasuna be ekarri leike «margo bakarrek» jaurlaritze onek.

Eta jokabidea zuzena ta eginkorra ba'da, Eusko Alderdi Jeltzalearentzat ondoren ederrak izango ditu. Gauzak txarto ba'doaz, ostera, beretzat izango dira erruak be.

Arazo askoren aurrean aurkitzen da Jaurlaritze barria: Gaurko zauriak eta betiko zauriak daroaz aldean.

Gaurko zauriak, eta onein artean lanaren larri-unea ta gogorkeriaren jokabidea batez be.

Eta betiko zauriak, Euskalerrriak aspaldiko gizaldietan osatu barik eta bizi-bizi soiñean daroazanak: Izkuntza, etorri-barriak, jakintza, erri-erakundeak, inguruagazko artu-emonak, salerosketa, nekazaritze, arraintza, langintza, kominokabideak, erri-zaintza...

Or dago Jaurlaritze, betor orain erriaren laguntza!

## Eldu al da garaia? (II)

### EUSKEREA ONARTUA

*Berrogetak urte oneik, euskal nortasunarentzat atzerakuntza aundikoak izan dira, batez be euske-rearentzat, eta euskera barik zer-egiñik ez daukagun ezkerro, erriarentzat.*

*Baiña, zorionez, alan edo olan, ez dogu galdu gure ele zoragarria, oraindiñokan euskal biotzak tak... tak... jarraitzen dau, takada makala da baiña bizirik dago eta bizia dagon artean itxaropena dago.*

*Gaur askatasun-eguzkia asi da mendi-tontor egaletik guganatuten, euskerea be asi da non-nai za-baltzen, Naparroa ta A raba be asi dira euskereari begiratzan, Euzkadi guztian asi dira agurka eta umeari ipinten jakozan euskal izenak ugaritzen. Sendiak, euskera jakin ez arren, beiñik bein ondo ikusten dabe semeai euskal-izenak ipintea. Gaur gure ele maitagarri au begirapen onarekin artua izan da Euzkadi guztian.*

\* :- :-

### ERRIGINTZAKO INDARRA

*Primo de Rivera'ren garaian abertzaleak gitxi ziran baiña ziranak zintzoak eta aldakuntzea etorri zanean ikaratu gintzazan, batez be Bizkai ta Gipuzkoa lurretan ain indartsu ta gogotsu erne zalako abertzaletasuna.*

*Gaur be ikusi dogu zelan erne dan abertzaletasun au auteskundeetan. A ldunak eta ordezkariak ez dira asko, baiña auteskundeak erriaren nortasuna agertu dau.*

*A lde batetik Suarez'ek lenengotan emondako astia ez zan izan geiegi eta beste alde batetik lenengotan Alderdiak ez eukan zabalkundea egiteko izparringirik eta Alderdiaren aurkako lanak lur bigun eta sakonean landuta egozan. Alderdia umezurtz aurkitzen zan.*

*A spaldion ikusten dogu A lderdia gorantza zelan doan: Gogoratu A ralar, Olarizu, Getxo... Or batzar orreitan Alderdiaren indarra agertu da eta erakuspen barri lez or daukaguz Udaletxe ta A ldundi-auteskundeak. Eta gaur ba'litzakez, txoritxo askok abestuko leuke.*

*A lderdiaren indarra agirian dago ba, eta euske-rearen alde be zentzun guztiaz jokatuteko orduan eldu dala uste dogu.*

\* :- :-

### EUSKEREAREN EGOEREA

*Guda madarikatu aren aurretik, «Euzkadi» eguneroko izparringian, euskera ederra, erreza, gozoa idazten zan. Gaur barriz euskaldunen izparringiak dirala esaten dabenak agertzen dituen lanak, oso negargarriak dira.*

*A lde batetik «h» non-nai sartzean, beste aldetik ez asiera eta ez amairik, zentzun-bako mingain-azalkeaz... Sarritan neure artean, neure oldozmenetan, esaten dodana auxe da: Eusko Alderdiak baten baiña gaiagotan adierazten emon dau guk bazkideok geure izparringia erosi bear dogula, baiña zertarako? Dakigun euskerea nastetako? Gaur dabillen euskera negargarria indartzeko?*

\* :- :-

### EUSKERA GARBI TA EDERRA

*Nik irurogei ta bost urte lepoan daukadaz eta zorionez euskaldun naz umetatik.*

*«Euzkadi izparringiak be asko irakatsi eustan zelan idatzi eta zelan itz egin. Beti izan naz euskal irakurlea. Baiña gaurko idazkerearekin iguinduta gertzen naz eta Sabin'darrok be edozelako iñuzkeriak onartu bear ete doguz?*

*Ez orixe. Eldu da ba garaia, zerbait egiteko eguna. Zirikatu dagiguzan ba bazter guztiak.*

*«Euzkadi» izparringian ez zan agertzen ezelako iñuzkeririk, ezta zezenketa-gaiak be, izparringi garbi ta leiala zan. Zergaitik gaur ezin leike eguneroko izparringi leial bat? Indartsuak gara eta euki geinke bai.*

\* :- :-

### LAN EGITEKO GERTU

*Nire gazte-garaian ez genduan izan ikasteko aukerarik. Oztaz-oztaz ikasi neban irakurten gaztele-raz, jakiña— eta gaur be ez dakik zer diran «A djetivo» «Substantivo» ta olakoak, baiña aurrera noia neure bizitzarekin.*

*Ni ez naz jakintsu, baiña gaurko idaz-lanak ikusiaz auxe diñot: Emen naukazue, orreik sasi-idazleok, lotsarik ba'dauke beste era batera idaztea lortu dagigun. Ni erdi eskola-bakoa izan arren, jakintsu orrei irakatsi bearrean ete nago? Niretzako ez dira eltzen «KINDER» era be.*

GORRIK  
(KARAKAS'etik)



## ETORKIZUNA

Gure erriko diru-oiñaren egoerea latz-ikaraz begiratzekoa da.

Jakitunen eritxiz, eta erri zeak bardin diño, narrasaren narrasez bea jota dakusgu bera eta gorakadearen arrastorik be ez dogu iñondik iñora nabaritzen.

Lan-bakoak 150.000 inguru ei dira eta eurengandik 25 urte bategabekoak, erdiak.

Txulut egin naiz ixteko zorian igaz aurkitu ziran alkar-go txiki ta aundiak be, lau millara doi-doi eltzen ziran.

Tamalgarría egiz.

Azterriai buruzko sal-erosketarako gaur egun dogun gaitasuna be ez da egokiena. Eta beste ainbat zio bitarteko dirala, ez ei da txikiena agiriko ta ezkutuko diru-ezartze urri ta murrítza.

Urte bi izango dira onetzaz be idatzi nebala, baiña orain askoz estuago gabiltz.

Ikuspegi oso baterako, urkuldu ta zeaztu bear litzakez nekezarítzaz, arraintzaz, merkatarítzaz eta mueta guztietako ostatutzaz zer-ikusi ertsi ta estuak laster baten zertxo garrantzitsuak esango duatzuedaz.

### BEARREZKO BERBIZTEA

Ekonomiaren berbiztea edo oneratzea ez da alatz bat, mirari bat, askok uste daben lez.

Ezin lei ezelan be egun betetik bestera egin.

Ba-dera, industri-maillan egiteko zeregiña dala uste dabenak be.

Nekezarítza, abelazkuntza, baso ta zugaitz-zaintza ta arrantzua euskal diru oiñaren lenengo maillan datzaz eta nai ta nai-ezkoa da eurai dagokiezan arazo berezietan eta urtenbide garrantzutsuetan eurakaz arduratzea ta tinko be tinko sakontzea.

Serbitzuen maillam be ez gara loak artu bear. Salerosketa, guztiriko zamate ta eroanekarteak. Ots: lurrezkoak, ontzizkoak eta gaiñerakoak alde batetik eta osakuntza, kirol-jolasketak eta osoriko eziketa on-on baten premiñazkoak diranak bestetik, eupada ta bultzakada indartsu baten bear gorrian dagozala esan geinke.

### JOKABIDERIK BEIÑENA

Lenen eta bein, eta epe luze baten ikuspenez ziurkiro, «ez baida egokia gure Erriaren, ludiko zaarrenetarikoen bizitz eta iraupena, urte gitxitan eta ekiñaldi labur baten jokatzeta» zazpi erkiak berbizte benetako baten oiñarri bi-ziak lez, kontuan artzekoak dira.

Au da, Euskalerrí osoa dogu lenengo muga.


Gure ekonomiaren jasotze bikain bat, len aitaturiko berein mailletan sustraiturikoa izan bear da eta euskal errialde bakoitxetik beste guztiak eta ekonomi izan bear da eta euskal errialde bakoitxetik beste guztiak eta ekonomi mueta oroetan atan be, peitu edo palta jakezan zer bearezkoenak jaso bearra dabe.

Baiña ez da naikoa.

Gure euskal jaurlarítzak parte bizia arturik, euskal diru-oiñari laguntza berezia emon bear dautso eta emoteko gerturik dagola edonok daki.

Orrez gaiñera, garrantzirik aundieneko lan onetan bertako biztanle guztiok, nork geiago, nork gitxiago, esku artu bear dogu eta batik bat, jakiña danez, agiriko elkargo ta erakundeak. Ekonomi aldeko itunbenak be «Conciertos Economicos» deritxoena, zerbaiten lagunduko dauskue artarako.

Eta gure kondairan zear egin dogun lez, gure arbasoen euskal leiaz, jo ta ke, jokatu bearko dogu aurkitu oi garan be-alde sakonetik len-bat-len urteteko.



### BARRU-EGITURAK

Barruko egiturak, infrastrukturak, batez be Madrid'e-ko laguntzarik-ezagaitik, erdi billosik dagoz.

Gugandik arturiko diruetatik zati txiki bat bakarrik itzuli dauskue.

Zebakietan adierazteko, 525.000 milloi lauerleko bear litzakez Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko errialdeak kontuan artzen ba'doguz.

Kopuru onetatik euneko berrogei agiriko antolaketak, serbitzuak, daroen eta % 60 barne egiturak xautu edo eurrakanatu dabez.

Orain itaun zerrendak:

Bietatik dirurik-eza ba'dago, zeíñi leentasuna emon?

Or dago kozka.

Larrialdi edo kinka gorri onei urtenbide lasai billatze-ko, gure euskal barne-indar eta ekiñaldi jator bizienak, ezkutukoak naiz agirikoak, bear bearezkoak dira.

Esandako guztiak astiro-astiro begiratuz eta gogartuz, euskotar zurrean erantzun bearra daukagu.

Or daukagu gure baikortasuna, gure diru-oiñaren berbiztea. Gai luzea izanda be, gaurko emen amaitzen dogu.

ARREGI'tar Josu'k

# BERTSOETAN

## MINTZATZEN

*Euskera, zure ederra zer da?  
Itzaren jakituria...?  
Itz barnean maitasun ezia?  
Zure nortasun garbia...?*

*Itzik ederrenak elkarturik,  
izkuntzarik garaiena,  
gizonik gizon dabil euskera  
izkuntza arrigarriena.*

*Eztia dozu itz gardenetan,  
loretan dagon gozoa,  
gizonak biurtu dira erle,  
maitasun biotz osoa.*

*Jakintsuak arritu dituzu.  
Munduko izkuntza artean  
bitxi illezkor aundia ei zara  
itz arrigarrienean.*

*Miin garbia biotzeen iturri,  
itz garden, non, sortu zara...?  
Jakituriaren tontorretik  
zatoz euskaldun plazara.*

*Euzkotarrean mintzaira bakaiña  
urretxindorra iduri,  
mendietako etxe zuriak  
txori ta itzak kantari.*

*Zure izki bakoitza, dardaraz,  
izar argia iduri,  
eguzkia baiño ederrago  
zure barneko itz zuri.*

*Gizontasuna agiri da zugan,  
euskaldunak dariona,  
euzkotarrean edertasun oro,  
mintzairarik garbiena.*

*Euskeraren bizitza indarra,  
zer da zure sormenean?  
Aita ta ama ain eder al dituzu  
bitxi guztien artean?*

*Olerkariak gogoko ditut,  
itzaren maisu argiak,  
euskal gozotasuna batu dau  
lorerik lore erliak.*

*Euskaldun da gure baserria.  
Lurrak euzkotar mintzatzen.  
Erleak lorerik lore doaz  
euskal ezta batzen.*

*Maztitik dator ardo gozoa  
bizia mozkortu nairik,  
nire bizia eta indarra  
biztu euskeraz jantzirik.*

*Euskeraz mintzatzen dau kanpaiak  
mendiko eliza zarrean,  
garo usaia euskeraz doa  
dorrean zear aidean.*

PAULIN

## "KILI-KILI EGUNA 80"

•  
Orrillaren 25'ean, Iruñan.  
Euskallerriko 20.000 ume joango dira.  
Euskera berbetan ba-dakie.  
Ez irakurten eta idazten.  
Umeakaz batera, gurasoak eta irakasleak.  
Amaika ta erdietan, Yanguas kalean.  
Dantzak, abestiak, txistua, kirolak, sariketak, margo-lanak...  
"Agur jaunak" gero eta etxera barriro.  
•



# "GALDU" TXAKURRA DALA-TA

Zubiri'tar Iñaki jaunaren liburu au oso atsegiñez irakurri dot asieratik azkeneragiño. Pozik irakurriko neukez beti onelako eleberri politak, eta Olazar'tar Martin jaunari be atsegingarri izan yako (ikusitako ZER, 30'garren zenbakia, 3'gn. orrialdea).

Baiña liburuaren erizpidea egitean, auxe diño Olazar'ek: «Joskeran be ikututxu batzuk egingo geunskioz, esaterako beste baten berbak aitatzean «san eban Motxo'k» barik «Motxo'k esan eban» eta olakoak idazten diranean».

Alan be, era biak erabili daitezke, esaerearen esanaia zein dan jakinez gero. Baiña ori jakiteko, aurretiko esanaldia (frasea) bear da jakin: «esan eban Motxo'k» esanda bakarrik, ezin esan daitezke zuzen ala oker dagoanik. Emen gaia labur-labur:

*Era bata:* «Zoaz ortik, esan eban Motxo'k»; «etxera joan daiteela esan eban Motxo'k». Onelako esaeretan zuzen be zuzen dago esanaldia: berba indarduna (inquirido) «zoaz ortik» eta «joan daiteela» dira; beraz, aditz nagusiaren aurre-aurrean ezarri bear.

*Beste erea:* «Zoaz ortik, Motxo'k esan eban». Emen, barriz, berba indarduna «Motxo'k» itza da. Azken-era onetan, *Motxo* da «zoaz ortik» esan ebana, Motxo, eta ez Peru, Txomin, Aitor, ez beste inor, Motxo baiño. Eta orregaitik, «Motxo'k» itza jarri bear aditz nagusiaren aurre-aurrean, berba indarduna da-ta. Ona emen beste adibide bat: «Benetan dirautsuet —erantzun eban Jesus'ek...» Esanaldi au ez leuke inok esango beste onetara: «Benetan dirautsuet —Jesus'ek esan eban—...».

Orregaitik, ba, barriri esan: «esna eban Motxo'k» edo «Motxo'k esan eban» izentaturik bakarrik, ezin esan daitezke zuzen ala oker dagoanik: esanaldi *osoa* agertu bear da.

Onelako esanaldiak ainbat datoz Ebanjelioetan; orrexegaitik izan dot nai puntu ori zelanbait argitzea.

Gai onen aurretik, beste puntu bi be aitatzen dauz Olazar jaunak, baiña ez dau adibiderik (ejenplurik) jarten. «Y naikoa ugari» erabilten dauala be da-diño; ez dot uste *yat*, *yako*, *yake*, *yoian*, *yoiazala* ta orreilakoetan izan ezik erabilten dauanik.

Onenbestez, naikoa. Eta zorionak Zubiri adiskideari.

KEREXETA

## J U L E N E AZPEITIA (Arritokieta)

Yo niaestra,  
a veces olvido  
las palabras  
y solo escribo  
AMOR  
en el tablero.  
*Maria Elena Quintero.*

*Julene Azpeitia. Irakasle euskalduna, benetako gogo sendoz ta erritar senez igaro zan, erakutsi ederrak emonez azaldurik euskereaganako maitasuna:*

*Irakasle argia. Zumaiarra sorkunez. Euskerearen aldezle bioztun ta kutuna; larogei ta amabi urte luze, astunez, erroturiko zugatz goilari ta bakuna.*

*«Arritokieta» andra zabal, etxe zalea: ilbarri dogun aberkide ta idazlea, emakume itxarokor, apal, dotorea..., kristau doaitasunezko ekanduz betea.*

*Ainbat urteren buruz umeak eskolatuz olbaltzetan zenbakiak ta, Euskalerraren*

*arduratasunez gogoak, biotzak argituz, ta aldibera, azi ona erein ondoren...*

*Ta, ixilik aldegin badausku be... Bai, zelan zelan aztu aren izena ta zeintasuna, bizi-zear irakatsiz, idatziz, ainbat lan iakingarri ain oparo eskeiñi euskuna?*

*Maitetasunezko irakasbide apalak —ipuin, olerki ta idazlan argigarriak— amets eziz beteriko berbagai zabalak, euskal alorrera gogo betez ekarriak.*

*Argi-izpi eredugarri ta bizi-biziak, euskerearen sendabidezko itxaropenez altxorturiko zillas, urregorriteriak, erriari opalduak benetako maitasunez.*

*Biotz aundiko «maistra» ori, olerkariak argira dakar, bizi dedin emen, betikoz, guk be Ari jarraituz, gogo ta asmo sendoz, aurkitu daiguzan urrezko ari barriak.*

Muniategi'tar Sabin

## GURE JOSUE (eta 11)

### AJURIAGERRA

#### ASKATASUN-BILLA

Itun Zarrak diñon lez, Moises izan zan Yahveh'en begikoa.

Basabazterrean artzain lez bizi zan eta Jahveh bera agertu jakon eta alkar-izketa aundia izan eben. Ejipto'ra, lur orretatik Israel'darrak ateratzera joan bear zala agindu eutsan Jahveh'ek.

Ez eukala bildurrik zertan izan, Paraon eta Ejiptoarren aurrean, bere begikoa zala-ta... estutasun guztietan ondo baiño obeto zainduko ebalá esan eutsan.

Ona emen gure gizon au izkillutzat bere artzain makillea artuta Ejiptoratua, bere amai guztien gaiak zuzendu eta len-baitlen Israel'dar lur aretatik ateratzera, baiña jakiñaren gain egoan Paraon'ekin lenengo alkar-izketea eta burruka gogorrrak euki bear ebazala eta or ibilli zan bulartsu ta kementsu Yahveh'en aginduak lortu arte.

Alako baten laga eutsan bere erri guztuari Ejipto orretatik urtetan.

Garai orretan gauza uts bategaitik litten eben, Pranko'ren garaian lez. Moises ez eben il, Yahveh bere zaindari zalako.

#### EGAZKIÑEZ

Gure Axuria edo Ajuriagerra jauna, atzerriratuta ebillen Euzkadi'gaitik lanean.

Santoña'n gudariak euren azken orduko goraberak, non, zelan eta zer egin bear zan jakin barik, txil eginda egozan zaparraka, zelan izan bear zan euren bititzea aurrerantzean, eukiko ebela eta eurak, gudariak, gixajo batzuk lez, arerioaren eskuetan jausi ta birrinduak izango zirala ta ainbat gauza geiago.

Ona emen ba zerutik jausita lez (egazkiñez agertu zan) gure Ajuriagerra gudari guztien aurrean biotzak goraltzen, agintari ta ordezkari guztiai agintzen, lendakari bakarra bera ba'litz lez.

Gudari asko agoa zabalik geratu ziran esanez:

Nor da gizon au? Ze eskubide dauka Agirre ta beste guztiai agintzeko?

#### ANAI-ARTEAN

Moises'ek Ejiptoar bat il eban eta go-roago ebreutar bi aurkitu ebazan burrukan.

Esan eutsen:

—Zergaitik zabilte anai-artean burrukan?

Eta areek erantzun eutsoen:

Nor zara zu agintari ta epaille lez agertzeko? Ejiptoar bat il dozu eta or zabilte gure buruzagi ba'ziña lez izketan!

Moises bildurtu egin zan eta atzerriratuta egon zan basabazter baten, Yahveh billa etorri arte.

Gure Ajuriagerra, Santoña'ko garaian atzerriratuta egoan Euzkadi'ren onerako. Gitxi gorabehera gudariak be au esaten eben:

Nor da gizon au? Sekula ez dogu ikusi eta ez entzun plaza-gizon lez, eta ez dakigu zergaitik izan leiteken ain garrantzi aundikoa.

Ez, gure Ajuriagerra ez zan erriarentzat Agirre ta beste plaza-gizon batzun bestean ezaguna, baiña burutsua zan, zuzena ta egi-egizkoa. Orra or ba, ondo baiño obeto irabazita gizon-leialtasuna guztien ordezkari lez agertzeko.

#### EPAILLEEN AURREAN

Moises'ek egiñalak egin arren Ejipto'n ez eben il.

Ajuriagerra'k be egiñalak egin zituan Santoña'n euskaldunen arduraz, bere bizi aurretik ipiñiaz, tinko ta moteltasun banik epaillearen aurrean Euzkadi ta euskaldunen alde, argi ta garbi itz egin eban.

Epailleak eriotzara zigortu eban eta Ajuriagerra'k egin zituan gertakizun guztiak eriotzako ordua eltzen zanerako, bere inguruan egozanak diñoenez, baiña

ez zan agertu tamalik ez bildurrik bere aurpegian; alaitasun eta pozgarrizko irudia baiño.

Esan dagigun ba; Or il ete zan gure Juan? Ala azken-orduko otoitz-eskintzak gure Jaungoikoaren begiko izan ete ziran?

#### BURUGAZI TA IKUSLE

Eusko Alderdia, eta batez be Euzkadi zigor gogor baten azpian jausi ziran.

Gure Jaungoikoak betiko ondamendia izan zeitekela ikusirik ez ete eikean iltzaillearen eskutik atera eta gure buruzagi ipiñi?

Gai onetzaz irakurleak dauke erantzuna.

Itun zarrak diñonez, Moises'ek bere erri osoarekin urten eban Ejipto'tik Kanaan alderantz, baiña Kanaan ingurura eldu orduko berrogei urte igaro ziran.

Yahveh'ek esan eutsan Moises'eri:

—Kanaan orretara sartzeko garaia eltzen danean ilgo zara, baiña it baiño len, mendi tontor baten gaiñetik erakutsiko dautzut Kanaan guztia.

Olan ba, Yahveh'ek eskiñi eutsan lurra ikusita il zan Moises.

Ajuriagerra ez ebel il Pranko'tarrak Santoña'n.

Zergaitik?... Dana dala, arnasea eukan eta arnasea eukan bitartean ez zan gelditu Euzkadi'ren alde lan gogorra egitean.

Poz-pozik ikusten eban Euzkadi'ko inguru guztia, gaztetxu bat ba'litz lez. Itxaropen aundiz ikusten eban Madrid'ko aldunen lana ta erabagia eta Moises'ek bere lurra ikusi eban lez, Ajuriagerra'k be erriaren itxaropena ikusi eban.

Itun Zarrak diñoanaz, Yahveh'ek esan eutsan Moises'eri:

—Zure ordezkaria Josue izango da.

Eta nor izango da gure Josue?

GORRI'K

(Karakas'en idatzia)



# AZKUE eta ARANA

Gizon bi izan ditu Bizkaia'k azken gizaldi onetan Geroago eta zenbaki berean, Azkue'k esaten Euskeraren alde, Euskadi'n geien lan egin dabenak, deusku Sabino zala: «profundo tratadista vasco». zalantza barik. Azkue'tar Resurreccion eta Arana'- ...Onek ez dau esan gura Azkue'k ontzat artzen zituena Sabino'ren gramatika eretxi guztiak, baiña

laburra. Arek bizitza luzea izan eban, onek, ostera, oso Azkue'k ori esatea asko baiño geiago da.

Arek zientzia aldetik landu eban euskerea, onek zientzia baztertu barik, politikaren bidez, il-zorian ARGAZKIA egoan Euskerea salbatu gura izan eban, eta asko lortu ere bai.

Gizon ospetsu bi oneik, alkarren artean, zelako artu-emonak izan ebezan?

Zelako eretxia eukan batak besteari buruz?

Arana'k Azkue'ri buruzko eretxia gaurkoz utzi daigun, eta bigarren alde orain agertu gura neuke.

Azkue Jaunak berba gitxitan, baiña zeatz eta sarkon agertzen deusku Sabino zer zan eta batez ere zelakoa zan, au da Arana'ren izakera edo aiurria: «Su tenacidad ejemplar, no llegaba a la terquedad».

Nik euskeraz esango neuke: Sabino'ren gogortasun zintzoa, ez zan gogorkeria» edo «Iraunkorra baiña ez buru-gogorra».

\* \* \*

## ERETXIA

«Morfologia Vasca» izeneko liburu mardul eta sakonean onelako au diño Azkue'k Arana dala-ta: (erderaz ipiñiko dot, bere berbak zer esan gura daben, egin-eginean ulertu daigun).

«...Arana-Goiri, para quien en conferencia publica tuvo el honor de pedir una estatua por haber pro solo el, a nuestra lengua, más lectores y escritores que todos los demás vascólogos juntos» (473 zenbakian).

## IRUDIAK

Azkue eta Sabino, gizon andi bi, aztutzerik ez dozue merezi.

Zuok biok emon dautsazue Euskereari, il zorian egoenari, bear eban osagarri eta indargarri.

Zergatik ez eragi

danon artean bi irudi:

Lekeitio'n Azkue Andiarri,

eta Abando'n Arana'tar Sabin'i?

GOIKOETXEA'tar Iñaki

# ANDRA MARI MARTIKO

Andra Mari Martiko  
arrairi barriak tatiko;  
tatiko ta matiko,  
aizez ez naiz biziko.

Eguna gangar, arro,  
urak uiol kolore;  
euri ta eguzkizko  
ezbaidun zeru-arte.

Kaioek mindurati  
ta, ozen, ar ta eme,  
arkaitzetan urduri  
txilioka ari dire.

So nago ortziari,  
odeiteri baltzari;  
so txorien deiari,  
goizari, egunari...

Osertzak illun-arre  
ta, ugiñak erre-min;  
barruan dot oñaze  
ikuspegi baltzakin.

Itsasoa illuna,  
gogoa illunago;  
ail, aberri kutuna,  
kezkaz beterik nago.

Neuregazko ibilliz  
astindurik egoa,  
amets batek naroa  
biotzeko Euskalerriz.

Nago eta banao  
neure munduz barrena,  
goituz neure arrena  
Maite-Otoitz Beroal

MUNIAITEGI-tar Sabin

# OLERKIAK

## AURTEN

Bertsoa ezta akulu txarra euskaldunontzat. Eta literatur-klase ortara gaztetxoak zaletutea, naitaez egiteko txalogarria izan bear.

Zornotza'n, Bizkaia'ren biotz lez dogun erri onetan, aspaldi dala gabiltz olako zer loturik. Emengo Erti-Kultur Alkartearak, Bizkai Aurrezki Kuxak lagunduta, seigarrenez ospatu eban urtarrillaren 27'an, domekaz, amar urtetik amabost bitartean dabilzan euskaldun gaztetxoaren arteko Olerki sariketa.

Iragarrita egoanez, goizeko amabi-ama-bietan asi zan sariketa. Zaar eta gazte, jen bete-bete eginda orduko Alkartearen aretoa; an ziran zuzendaria, Federiko Intxuasti; maikoak, Aita Onaindia, Serapio Ugarte ta Andres Etxebarria, ta R. Arriola, Aurrezki Kutxaren ordezkoa.

\* \* \*

## LANAK

Ogetalau neska-mutiko aurkeztu ziran nor-geiagoka onetan parte artu nairik, eta zuzendari ta mai-burukoen itz-mordo ostean, zutoi edo podio gorriz estalira igonaz, olerkari txiki bakotzak lenengo bere lana ta gero A. Onaindia'ren «Goiznabar» olerki liburutik beste bat irakurri, abestu naiz otsegin eben.

Buruz ez gitxik eta abots zoliz danak.

Neskatoak naiz mutikoak euren zeregiña bete ondoren, txalo ederrak entzun ebezan.

Txairo, trebe ta eskertsu jokatu bait eban bakotzak.

\*

## NONGOAK

Bizkai osotik bertoratu ziran olerkariak: Ondarru'ko «Zubi-zar» ikastolatik, «Lauaxeta» ikastolatik, Zornotza'ko Lekaimen Ikastetxetik ainbat, Euba'ko «San Gabriel» Ikastetxetik, Zornotza'ko «Andra-Mari» Ikastolatik, «Karmel» ikastetxetik, eta abar.

Batzuk, jakiña, beste batzuk baiño obeto egin eben, baiña danak duinkiro, barruan dardar egitsen poza arpegian adierazoz.

\* \* \*

## ONENAK

Lenengo maillan geratu ziran bost onenak: 1) Joseba Andoni Agirretxea, 13 urtekoa, Ondarrutarra; 2) Igone Gorostitza, 11

# GAZTETXOEN EUSKA

urtekoa, Zornotzakoa; 3) Maite Albarez, 11 urte, Zornotzakoa; 4) Ane Miren Ariznabarreta, 15 urte, Galdakokoa, ta 5) Miren Go urte, Zornotzakoa.

Bakotzak egokion garai-ikurra ta liburu polit bat artu eben.

Parte artu eben beste guztiak be, Bizkaiko Aurrezki Kutxak emonda, 300 pezeta errikoak 500 pezeta kanpokoak artu ebezan.

## SARI-BANATZEA

Ordu-bete ta erdi emon ziran olerkiak esan eta sariak banatzen.

Egun eder-ederra, bai eguzkiz eta bai barne-giroz.

Pozez gañezka ta barritsu etxeratu zan jentea.

Batzuk oindiño, X. Amuritzaren omenaldia ordu berean ospatzen zala-ta, ara zuzendu jakuzan, bertso-griñari eutsita.

\* \* \*

## OBETO

Zelakoak ete ziran bertsolari ta olerkari txikion lanak?

Esku artean dot bat, eta nire eritxi apala jakin nai ba'dozue —berezkoa da—, leialki diñotzuet, aurreko urteetatik onuntz oinkada ederrak emon dirala; gero ta olerki biribil, sakon eta beteagoak dakarrezala gure neska-mutiko txikiak.

\* \* \*

## TANKEREA

Zeuk be, azalez irakaurri ez-ezik, barruz ausnartu be egin dagizuzan, ementxe damotzudaz txikietariko batzuk.

Luze-laburrez ezbardifiak dira, baita darabillen gaiez be.

Neurri ta rimari, egia esateko, ez dautse inportantzi aundirik emon; bertso zurira, errezero nunbait, jo dabe geienak. Baiña bertso-labur txikiak politoago dagoz neurri barruan eta azken bikaiñetan emonda.

\* \* \*

## NAGORE BELOKI

Ez aundi ez pitin, ez onen ez txarren, edo asita, «Lauaxeta» ikastolako Nagore Beloki'k loraz-lora dabilzan erle langilleai eskintzen dautse bere lana.

Ona:

*Loraz-lora dabiltz erleak  
lore-autsa biltzen;  
ara ta ona dakustaz  
egaz egiten;  
erlauntz ondoan dabilta  
etxea zaintzen.*

\* \* \*

## IRUNE ELORRIAGA

Amar urte ditun Iruñe Elorriaga'k, barradin, bertsolariak goersten ditu:

*Bizkaian bertsoak  
ugariak dira,  
ta bertsolariak  
maitatuak dira;  
gure koplariak  
txit aundiak dira:  
bertsoak asmetan  
lar azkarrak dira.*

\* \* \*

## IDOIA ARIZNABARRETA

«Lauaxeta» ikastolako dogu Idoia Ariznabarreta, 10 urtekoa; ba-dau, ez ukatu, olerki sena. Eta inguruko ederrari begira, loren txairotasuna abesten dausku:

*Aizearen besoetan  
ta eguzki epeletan  
lora bat dot nik ikusi  
dilindon, dilinetan.*

*Polita dozu kolorez,  
nolako usaiñal  
esaten ez da errez!*

*Biotza dot kantari,  
pozez kantatu dautset  
nik ari ta ari:  
«Loretxin lore,  
maite ditut maite,  
usain ta kolorel*

\* \* \*

## L OLERKI-SARIKETA

### KOLDO AZPITARTE

Koldo Azpitarte, «Karmel» ikastetxean dabilenak, onan asmatzen ditu ziri-ber-  
tsuak, alperrai ta zintzoai onduak batez be:

*Ondo jan, bardin edan,  
eta gauza ederrak  
bearrik egin barik  
dituez alperrak.*

*Zintzoak jaten dabe  
bedar ta lastoa:  
zintzoa beti izan da  
alperren astoa.*

\* \* \*

### KRISTINE GONTZALEZ INTXAUSTI

Kristine Gontzalez Intxausti'k erromeri  
bat dauku pintatzen, etxean dauken erro-  
meria. Txakurra, kayua, txoria ta amama  
dabez etxean... Onein alkar-izketa ta kome-  
riak sarri! Ona olerkitxoaren len-estropa:

*Gure etxe polita  
koral eder bat da:  
Txakurra guau, guau...  
Katua miau, miau...  
Txoria abeslaria...  
Ixillik ez gure amama.*

\* \* \*

*Baita arraiñak ugari  
ekartzen zenduzala  
erritarrentzat janari,  
guztien poza ziñala.*

*Baiña gaur zer dakusku?  
Guztiz zikindua zatoz  
bizi guztia galdu dozu,  
arraiñik ere ez dakarzul*

*Gizonek erail dabe  
maite gendun bizidun bat,  
gure atsegin bat il dabe  
biotz gogor diran gizonak.*

*Ibaizabal maitel  
Nork biztu ete daike  
danon poza izan dairen  
ur garbi gardenetanl*

\* \* \*

### ITXAROPENA

Onelakoxeak doguz gure txikien poesi-la-  
nak, pentsamentuz eta biotz-ikaraz jantziak.

### MARI MALEN ALDAMA

Eder dogu bizia; ez nai, beraz, berau gal-  
terik. Argi susperkor lez dakus Mari Malen

*Eriotzean amaitzen dana  
bizia da, argi bat da;  
egun pozgarrian sarri  
amaitzen da argi au.*

*Baiña, ez; zu nere argia,  
nere bizia,  
ez zaitez amaitu.  
Ez zaitez joan...*

*Beste egun bat ikusten  
itxi eistazu.*

\* \* \*



### MIREN GOTZONE AZPITARTE

Miren Gotzone Azpitarte'k euskaldun  
zintzoa goratzen:

*Eroan eta ekarri  
artu-emonaz alkarri,  
orixe dogu danoen  
eginkizun goragarri:  
Euskalerriko gure lanak  
danontzat dira ongarrri.*

### MARI KRUTZ PERIBAÑEZ

Mari Krutz Peribañez'ek Zornotza'tik  
zear —gaur naiko loi— doan Ibaizabal'i es-  
kintzen dautsoz bere bost estropak:

*Zure ur gardenetan  
gazte eta nausiak  
alai ibiltzen zirala  
entzun izan dogu.*

Aurrez dakuskula, nik uste, olako ar-obi  
bikaiña.

Ar-obian lenengoz, Mañari'n eta Marki-  
ña'n lez, arri zakar zartatua da aurkitzen,  
baiña gero apurka barreneratuz, atxurdin  
(mármol) ederra.

Bedi emen be orrelaxe.

AITA ONAINDIA

# IZTEGIA

## Azkue'ri Jarraitzen (111)

	T	Txitxiña	<i>Gizonaren txisbide txikia. (Umeena).</i> Aparato genital (menudo).
Takin	= <i>Une.</i> Instante.	Txoko	= <i>Gertaera ona.</i> Buena ocasion, oportunidad.
Tantza	<i>Esku zurda.</i> <i>Pita.</i>	Txurla	= <i>Batelak erabilten daben albo-alboka.</i> Balanceo de las embarcaciones de un lado a otro.
Tenteko	= <i>A ga luzea.</i> Palo largo	Tuer	<i>Begi okerra edo bakarra.</i> Tuerto.
Tertixuan	= <i>Aldartzeko, konparatzeko erabilten da.</i> En comparacion de...	Tukur	= <i>Kerten.</i> Tallo.
Tollanak emon	= <i>Gogor jo.</i> Pegar fuerte. <i>Tolla arrain gogorra da, ta arrapatuta gero, ilteko, gogor jo bear izaten da.</i>	Tuntux	= <i>Tente. Zutik.</i> En varios juegos, situacion de la moneda o cuchillo al quedar empotrado y de pie. <i>Azkue: Tuntuiz = boya.</i>
Tonk	= <i>Gelditze.</i> Paron.		U
Trebol	<i>Aparixuak Iota edo batzeko egurra.</i> <i>Traola.</i> Cuadrilatero de madera para apa	Ume txikin	<i>Frutu baten ondakiña.</i> Residuo de fruta, que se arroja.
Tripitrapu	<i>Igela.</i> <i>Rana.</i>	Urandiko arrain	= <i>Urandietako arraiña.</i> Pez de mar profundo. Fig. hombre de mucho prestigio.
Troku	= <i>Zati bat.</i> Un pedazo.	Utzalapiko	= <i>Diruak gordeteko kutxatxoa.</i> Hucha.
Trunpail	= <i>A ragi anditze bat.</i> Chinchon. <i>Azkue: Trumpilo.</i>	Uzkar ume	<i>Sendi baten azken jaioa.</i> El ultimo nacido de los hijos de una familia.
Txangil	= <i>Etxegille?</i>		Z
Txankar	= <i>Ainka luzedan gizona.</i> Hombre de pierna larga.	Zas	= <i>Utsik. Zasian ibili. Diru barik ibili.</i> Sin dinero.
Txarta-Txartaka	= <i>Saltoka.</i> Saltando a la superficie (peces).	Zazkildu	= <i>Zatitu.</i> Hacer pedazos, añicos.
Txartona	= <i>Txartu.</i> Empeorar. Aumentar el mal.	Zazpiki	= <i>Gizon estu. keixua.</i> Nervioso, inquieto.
Txatueta	= <i>Ultze txikia.</i> Tachuela.	Zibot	= <i>Barri.</i> De estreno. <i>Azkue: capullo de gusano.</i>
Txibikorain	= <i>Txibitarako aparixua.</i> Aparejo para la pesca de jibiones.	Zirin-Zirin	<i>Beruzkoa.</i> Diarrea.
Txingaleku	= <i>txamarraren etena, atze aldian.</i> Corte de la chaqueta, gabardina, etc., en la parte trasera.	Zirrimarra	= <i>Nastea.</i> Revuelto. <i>Azkue: a la ligera.</i> <i>Ondarroa'n esaten da: Zirrimarra andia dauka itxasoak.</i> Hay mucho mar de fondo. <i>Zirrimarran dabiz olatuak.</i> Las olas andan atras y adelante.
Txintxirrika	= <i>Umien joko bat.</i> Jugar con un pedazo de piedra lisa, pasando cuadros.		<i>Bat bateko.</i> Tajante. De rompe y rasga.
Txintxoleta	= <i>Arrain andi bat.</i> Chincholeta. Pez.	Zirzarteko	<i>Atzerantz eragin.</i> Ciar. Frenar.
Txipar	= <i>Galdaratik ataraten dan ur beroa.</i> Agua a presión que se extrae de la Galdera.	Zoraize	= <i>Gangarkeri.</i> Venada. Locura pasajera.
Txirikilloia	= <i>Izen ori daroan ume jokoan erabilten dan zotza.</i> Palito que se emplea en el juego de la toña.		
Txirikillote	<i>Ik. Txirikilloia.</i>		



# IZTEGIA

Zorogangar	= <i>Zorakeriz beteta.</i> Loquillo. A lo loco.	Arrain txingola	= Cinta.
Zurda	= <i>Tantza.</i> Crin. Pita para aparejos.	Arrain txirola	= <i>Putxano.</i> Chiflete.
Zurdazkaize	= <i>Aize gogor, larri.</i> Viento fastidioso, muy molesto.	Arramuy	= <i>Itxas trutxa.</i> Trucha de mar.
Zurtzilluak	= <i>Zudur zuloak.</i> Fosas nasales.	Auntzarraiña	= <i>Auntza.</i> Cabra. «Paracentripistis cabrilla».
Zuskulu	= eskuta leku. Escondrijos.	Barbadiña	= <i>Barbariña, izoka semea.</i>
Abadio		Berrugeta	= <i>Antesa, merua.</i> Corvina, berrugeta.
Abadira	= <i>Itz bi oneitan «Gadus Poblachius» eta «Merlucius Merlucius» nastu- ta erabilten dira.</i> <i>Batzuk Abarixua esan naira joten dabe, besteak lebatzari izena aldata.</i> <i>Batera nai bestera biak Abadio tik datoz.</i>	Bitsarrain	= <i>Korrokoi, buru zabal.</i> Corcón, albura, mules.
Abixui		Bollarrain	= <i>Iragi arraiña.</i> Pez luna
Abixuia	= Pez plata.	Bumiltxuri	= <i>Gobio.</i>
Abriña	= <i>Kolaioa. Motriku'n erabilten dabe.</i> Colajo.	Burriota	= <i>Kakajale, gurbi.</i> Verrugato de fango.
Abrota	= « <i>Spanis pagus</i> ».	Burriyua	= <i>Kukurrukua, neskazarra.</i> Garneo, rubio, escacho, «Trigla lyra».
Aibarte	= <i>Azkue'k Jibarta lez erabilten dau.</i>	Burtai	= <i>Gaotza, galatza, pikua.</i>
Aitzekabra	= <i>Itxaskabra, kabrarroka. Sakillo.</i>	Dragoitxiki	= <i>Xabiroia.</i>
Aker mujoia	= Chicha. Sargo picudo.	Egaletsu	= Rubio, volador.
Atalua	= <i>Itargi arraiña. «Mola-mola».</i>	Egarrain	= <i>Txoriarrain.</i> Juriola, pez volador.
Alatxa	= <i>Kodaka.</i> Sábalo, salveo, sable, alosa arencón, sardina arenque.	Erastun arrain	= Anillo.
Albokarte	= <i>Antxoa, bokarte.</i>	Ernabeira	= <i>Erla.</i> Pez herrero, perla.
Aliba	= <i>Ikara. (Raya).</i>	Errege	= Rey.
Aingeru guardaki	= <i>Matrana, zabalera.</i> Pez ángel, angelote, mermejuela.	Erromero	= Rémorea.
Aolatza	= <i>Letxera, pospolua.</i> Ababurda, madre de congrio.	Esneduna	= <i>Letxera, merlana.</i> Merlan, plegonero, sarreta.
Aota dabeta	= <i>Lazuna.</i> Muble.	Ga-atz	= Lija.
Arrigorri	= <i>Burriyua, kurrukurrua, neskazarra.</i> «Trigla cucculus». Borracho, perlón.	Gaatz galatza	= Cailón.
Armiarmarrai	= <i>Salbera, xabiroia.</i> Araña, escorpión, salbario. «Trahi- nus Draco».	Galatza	= Lija.
Armiña	= <i>Kolaioa. (Colajo).</i>	Gardia	= <i>Kardia.</i> Ganabota, boquidulce.
Arrainbaltza	= <i>Perloia. Perloi baltza.</i> Borracho, rubio, perlón. «Trigla guirnaldus».	Gasteke	= <i>Arrain, zabala.</i> Raya, raya santiaguera.
Arrain batzaya	= <i>Luia. Palabaltza.</i> Doncella. Julia.	Gaatz andiena	= Lija mayor.
Arrain bizardun arraingorri	= <i>Barbariña, izoki semea.</i>	Gobio	= <i>Katuxa, murela, talamazoka.</i> Gobio.
Arraingorri	= Escarcho.	Gurbi	= <i>Gurbiya, burriota.</i> Corvina, verrugato.
Arrain gurbil	= <i>Muxarra, txopa.</i> Ollaca, choa, cántara.	Ikarayua	= <i>Eskuikara.</i> Ortiga, torpedo, temblon, tremilga.
Arrain mingaña	= <i>Ezpaña.</i> Pez sable, aguja. Paladar.	Ilisatsa	= <i>Aitzeko kabra.</i> Cabracho, escorpio, rascacio.
Arrain suge	= Culebra de mar.	Itargi, arrain	= <i>Atalua.</i> Pez luna.
		Itxaskatua	= Gata de mar.
		Itxas azeri	= Guadaña, rabosa, zorra del mar.
		Itxas barbo	= Barbariña. Barbadin o barbo, sal- monete.
		Itxas danboliña	= Rape o pez tamboril.

---

# GIZARTEA

---

## BEGIKOTASUNA

### ERAGOZPENAK

Batzutan oso errez da begiko izatea.

Beste batzutan ostera oso zail edo eziña.

Zelan azpiratu ta menderatu norbaitek bidean jartzen dauazan eragozpenak?

Sarritan eroapena be galu egiten da. Ezin iruntzi leitekez ainbeste eragozpen.

Ainbeste traba jarten dabez bidean! Batzuk kalte egitea baiño beste asmorik ez daukela dirudi. Biotz baltza ta asmo ta gurari txarrak agertzen dabez.

Zer egin orduan? Bardin jokatu? Jokabide zitala da ori. Ez da gizonkiro jokatzea. Zelan jokatu beraz?

\* \* \*

### ONERAKO

Batzukaz begiko ta maitekor agertzea ta izatea oso zail da. Alperrikoa be bai. Geu ondatzeko bakarrik munduratu dirala dirudi.

Alan be ondo pentsatuta auxe esango neuke nik: Lurek onela jokatuta gizon txikiak clirala agertzen ba'dabe, guk be eurek bezala jokatuta geure gizontasunik-eza agertuko dogula.

Ganera geure onerako dagie orrela jokatzean.

\* \* \*

### GAUZA GATXA

Zelan? Geure nortasuna sendotzen irakatsiz.

Gure egiteak geure-geureak dirala irakatsiko dauskue.

Geure-geureak beste ñorenak ez.

Geugaz begiko diranakaz begiko ta maitekor izatea ta agertzea gauza erreza da: Mesede bateri irri-barrez itz gozo bategaz erantzutea.

Baiña kalte egin dauskunari ezkerreko begiekaz ikusten gauzanari ta geuk orobat ikusten dogunari irri-barre egitea, gozoro itz egitea, ez da erreza.

Ortarako indar egin bear da, biotza esku biekaz artu.

\* \* \*

### ADISKIDEAK

Maitekorrekaz maitekor agertze berezko da.

Begikoak ez diranakaz maitekor eta begiko agertzea aldatz-gora jaku, baiña auxe da egizko kistarra izatea.

Auxe Kristoren bidea jarraitzea.

Begikotasuna da adiskideak egiteko biderik onena.

Irri-barrea, zintzoki egindako irri-barrea, euki beti arpegian, ordu ta une guztietan.

Atsekabeak eta naigabeak inguratzen gauzanean be bai.

\* \* \*

### ERITXIAK

Izadiaren gelgairik aundienetarikoa da begikotasuna —esan eban Grazianek—. Xoxoagaz ezin euki leiteke begikotasunik. Eltzen dan lenengoan barre dagianagaz be ez. (Stendal).

Edonok euki leike begikotasuna adiskide baten atsekabean. Bere garaipenetan begikotasuna eukiteko nortasun adikor-mardula euki bear da. (Oscar Wilde).

\* \* \*

### BETI TA EDONON

Geure nortasuna agertu dagigun beti ta danakaz, begiko agerturik. Begiko danakaz bakarrean eta agirian. Be<sup>z</sup>iko itzetan eta eeiteetan.

Geure barnea ezi, gaintitu, azpiratu ta menderatu.

Gizon eta kistar agertu beti danakaz eta edonun.

## ABERRI EGUNA -80

*Gaur goizean jaikitzean  
kaleak utsik ikusi dodaz,  
eta pena bat sentitu dot  
biotzean.*

*Euskalerrian  
dagon giroagaitik,  
ezin izan dogu  
ondo ospatu aberri egunik.*

*A berria  
tristetu da,  
ezin izan dogu  
ospatu jalaldia.*

*Datorren urtean  
aberi eguna  
izango da,  
benetan!*

JOSEBA BILBAO

# K. ETXENAGUSIA

## BARRI POZGARRIA

EUSKERAZALEAK taldearen barruan poz-giroa asmatzen da. Gure bazkide ta lankide dogun Etxenagusia'tar Karmelo Gotzaindegiko Ordezkarri nagusi izendatu dauskue, goterkiko abade ta laikoen artean auteskunde egokia izan ondoren.

Zorionak Karmelo'ri eta zorionak EUSKERAZALEAK taldeari.

## JAKINGARRIAK

Yurreta'n, 1932'ko jorraillaren 24'an jaioa dogu Karmelo.

Gordexola'n, Artea'n, eta Gasteiz'en egin zituan bere abade-ikasketak eta 1955 urtean egin zan abade. Geroago, Comillas'en, Eleiz-Legediaren ikasketak egin zituan eta «baimendun» agiria lortu eban.

196 l'garren urtean sartu zan Gotzain-Etxera lan egiteko eta an diardu.

## EUSKERAZALEA

Lan onetan ez doguz aitatu bere eleiz-lan ugariak (abade-gaiien etxean, lekaimen kapellau, III ordezkaritzako arduradun...) eta eleizea ta euskerea alkartzen dituen lanak pizka bat aitatu doguz.

Eta lenengo, Gasteiz'ko abadegai-etxean: Gudaostean izan ziran lenengo ikas-aldietan an egoan Karmelo: Euskera ikasteko baimen barik, jolas-aldietan alkartuta, etxeko zuzendariak «ikusi-ez» egingo ebalai baiña baimenik ezin emon leikela esanda. Zaletasuna ba-egoan eta ikasi-bearra be bai.

## IDAZLEA

Karmelo euskal idazlea dogu elerti-arloan, literaturaren kondaira-arloan. Berea izan zala uste dot euskeraz agertu zan lenengo literatura-liburua.

Baiña Karmelo'ren lenengo lana, eleiz-lana izan da beti eta ez dau izan asti larregirik idazle-arloan lan egiteko. Eta tamalgarria da, idazle argia, zeatza ta jatorra da-ta.

## ITZULTZAILLEA

Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusia egin zaneetik, Eleizan lana ugari izan da eleiz-liburuak euskeratzen, eta lan au egiteko talde on bat sortu zan.

Talde orren barruan lan aundia egin dau Karmelo'k, eta ez berak bakarrik, sarritan beste batzui be, eleiz-liburuak zelan euskeratuta dagozan eta zelan euskeratu bear diran itandu dautse.

## IRAKASLEA

Esan dogun lez, Eleiz-lana ta euskera-lana egokiro alkartuz, Karmelo'k irakasle lez lan aundia egin dau euskerea bera Abadegaiien Ikastegian irakasten, eta lan orrek Euskalerrri guztian zelako garrantzia izan dauan ikusteko ez dago billaketa sakonik egin bearrik: Abade egin diran eta azkenera eldu barik urten daben asko ta askok izango dabez go-goan bere irakatsiak eta berak emondako trebetasuna gai oneitan



J4 VI LR BAI L\_GOOR

## IZLARIA

Karmelo izlari ona da, batez be euskeraz jentearrean itz egiten dauanean.

Eta au ez da neure eritxia, beste barik. Mikel Zarate'ri egin jakon omenaldian izan zan batek, auxe esan eustan: Ederto egin dau berba Karmelo'k. Pozik egon naz berari entzuten. Euskera garbia, gozoa, erreza ta ugaria, benetan!

## ORAIN ZER?

Ladur-labur eta zeartasun larregi barik egindako lantxu au amaitzeko eta esan bear diran gauza asko esan barik geratu dirala jakiñik, geroari begira, itaun au datort burura: Orain zer egingo dau eta egin bear leuke Karmelo'k?

Arlo baten beintzat, asitako lanari jarritu: Eleizea euskaldundu, Erria ta Fedea alkartu; bide orretan aurrera egokiro egin dagien, Gotzaindegian lagundu; Gotzaindegia benetako euskal-arpegia agertu. Bilbo'ko Eleizeak ba-dauka, zalantza barik, euskal-zaletasuna, baiña argiagota garbiago agertu bear da, eta ori lortzekoba-dauka naikoa zeregin bere maillan Karmelo'k.

Eta zerbait zeatzagoa nai ba'dau, Karmelo'k ondo daki Bizkai'ko euskerea zelan dagon eta EUSKERAZALEAK zer eskatzen daben.

OLAZAR'tar Martin'ek

---

# KONTU- KONTARI

---

## ORREAGA'KO ANDRA MARI

### ORREAGA

Oso entzute andikoa da Orreaga au Euskalerra osoan, eta mundu guztian.

Emendik zear ibilliak dira Prantzi'ko gudaroste ugariak, euren Karlomagno, Oliberos ta Roldan ospetsuak buru ebezela.

Eta emen ondatu ziran eurok eta euren ondoko Ludobiko Pio ta aren mutillak, orduan eraiki zan Naparroa'ko erreinua, Iñigo Aritza bertoko errege egiñik.

Orreaga orretako egintza orreek zirala-ta, sortu ziran epiku-kanta zar, *eder eta ugarietak*.

Orreaga'ko bidea be zan Santillorako erromesen biderik zapalduena, eta orduko mundu guztiko konbentu ospetsu ta aberatsenez beterikoa.

Baiña ango gauzarik eta pitxirik ederrena Orreaga'ko Andra Mari da.

### BASAUNTZA

Ona emen, zelan agertu zan, antxiñako ipuin batek diñoskunez:

Artzaiñak bakarrik ei ebiltzan, pagoz jantzitako mendi areetan.

Eta zapatu illuntze batean, basauntz bat agertu ei jakou alako artzain bateri, Adar luze oker artean, mirarizko izar bat ei eukan basauntzak.

Alditxo baten, artzaiñari begiraka geratu, eta arinka ta jostalari, etorri zan lez, atx artean egoan iturrira joan ei zan: eta angoxe ur gardenetan edan eta edan egon ei zan luzaro.

Bien bitartean, iturritxuaren inguruetan, iñoz entzun bagako abestirik ezitsuenak entzun ei ziran, Andra Mari'ren omenez.

Gero, norabaitera iges egiten eban basauntzak, ta abestiak ixil-tzen ziran. Eta bardin, urrengo zapatuan, eta *urrengoan...*

### AGERPENEA

Eta artzaiñak, ainbat bidar ikusitako gertaera ez zala ixilik eukitekoa, eta beren lagunai iragarri eutsen. Baiña,

bai zera! Ez eutsoen jaramonik egin. Eta berak, baietz ta baietz; eta besteak, ezetz ta ezetz...!

Eldu jaken, azkenez, barri miragarria ibarreko agintariak; eta agindu au emon eben: ango bazter guztiak arakatzeko, nun-zer eikean ikasi egien.

Batzuk sasiak kendu, lur-ondoa atxurtu bestetzuk..., danak ekin eutsoen lanari gogor. Ekin da ekin, ...eta ona non agertzen jaken, arri landuz egindako maku antzeko goialde miragarria...

Jo ta jo, sakondu geiago..., eta au poza! Andra Mari'ren irudi zoragarria, ain zuzen be...!

Eta ez Andra Mari'ren irudia bakarrik... Andra Mari'ren aldamenean, arrizko beste irudi bat, balauniko, Areri otoizka ba'legon lez: Soiñean dauzan eliz jantziak adierazoten dabenez, antiziñako gotzain baten irudia, antza.

Eta beste irudi bat, onen ondoan, aingeru batena, itxuraz, egoak zabalik, gurutze batez apainduriko jantzi edereder bat gotzaiñari eskintzen dautsola.

Ez ziran ez, alperrikako lanean ibilli Orreagako artzain zintzo areek!

### IRUDIA

Zurezkoa da Andra Mari'ren irudia. Eta garai zar areetako eskulanik ederrenetarikoa, ziur. Zidarrez jantzitako aulki eder baten jesarrita dago. Zidarrezko aulkitxoan be Aren altzoko Jesus seintxua.

Irripar goxoz alkarri begira dagoz Ama-Semeak. Eta *sagar gorri* bat dauka Umetxuak eskuetan.

### ELEIZEA

Irudi zoragarri ori artu, ta elizatzu bat egin eben, irudia aurkitutako ta basauntza agerturiko leku miraritsuan.

Eta Naparro'ko errege. Santxo Indartsuak beste eliza aundiago ta ederrago bat eraiki eban berton, lengoaren orde.

Eta berton, eliza aundi ta eder orretan eortzita datza errege adoretzu orren gorpua. Berton gordeta dozuz, baita Tolosa'ko Nabetan berak, errege bizkor arek apurtutako Moroan kata gogor areek!

ESTONBA'TAR MANUEL'EK



## IBILALDIA

### BIZKAIA IKUSTEN

Esan bearrik ez ba'dago be sarritan esan da, Bizkaia zear ainbat baster eta inguru dirala ikusgarriak eta, beraz, ibiltaldi bikain bat egiñez ikusitea gai dabenak eta ikusi barik dabezana erakutsi bear dautsoguzanak. Neke asko barik eta txindi gitxi gaitik bertara elduteko eraz dagozanak gaiñera.

Beste idazlantxu baten esaten genduan lez, orretariko txangotxu asko egin litzakez gure euzko gaztetxuek, jolasean-jolasean zer ikusi ta zer ikasi daben toki edo baster asko ikeru leikezalako, soinketa pizka bat egiñez, kirol garbiaren bitartez.

### EREÑO'RA

Epalla'ren azkenengo igandean, orretariko ibiltaldi bikain bat egin genduban Ganguren Mendigoizale Talde'ko gaztetxu-mordo aundi bat egaz: Berrogei ta amabosten bat, eta euren artean gure illo-batxuk bere bai, Gernika aldetik aurrera.

Orretarako, errian, Galdakano'n goizeko zortziretan urten gintzazan jente-berebil aundi baten, Zornotza ta Gernika zear Artea'ko Gautegiz'etik Ereño goi-erritxu garbira bederatziak edo zerbait gerotxuago elduteko.

### GAZTELUA

Arteaga'tik igarokeran baiña, lendik bere geienak ikusita euken bertako gaztelua, zelan Bonaparte bakaldungaiak (prinzepak) bere emazte Montijo'tar Eujenia'ri egindakoa zan eta, abar azaldu eutzesan Batzordeko baten-batek. Bai-ta be, zelan Bonaparte ori euzkotarron adizkide zintzoa izanik, zenba lan eder egiña zan gure euzkera maitagarriaren alde ta abar.

### ATXURDIÑA

Bai-ta erakutsiten emon jaken gaztetxu orrei, zelan Ereño'ko arrobietan ateraten zan aitz-urdin gorritzka ederra Itali'ra saltzen zan, gero bertatik, Itali'tik ludi guztira, ta beraz España'ra be, saltzeko Italia-ar aitz-urdin ospetsua ba-litzaken lez.

### KONDAIRA

Gallur ortan berean azaldu jaken gaztetxu orrei, zelan Bizkaia'n 1.404'gn. argitaldutako edesti baten esaten dan gaur-egun basatxonua dagon toki ortan berean gaztelu bat aurkitzen zala, baiña, Gernika'ko Batzarraaren aginduz egotzia izan zala, beren lekuan txadontxua, eleizatxua jasoteko.

Bai-ta eleizatxu ori 1.625'gn. arte bere Ereño'ko erria'ren txadona lez izan, inguru artako illak be bertan eortzi edo lurperatuaz.



### BASELEIZA

Ereño'tik igon genduban, orain apaindu-barri dan bidetik, Ereñotzar gal urrean dagon Goi-Gotzon Mikel deunaren basatxonu ondora.

Eta egiz arrituta geratu gintzazan ain ederto apainduta basaleizatxu ori ikusitean! Ereñotarrak eurak apaindu ei-dabe, aldamenean aterpe naiko zabal ederra sua egiteko ke-bide ta guzti daula.

### SANTIMAMIÑE

Gallurretik pizkat Ereño'ranta jatsi ta lardi edo piñu artetik bidea zear Sorkalde'tik mendia zerkatu ondoren, jatsi gintzazan Basondo edo Santimamiñe'ko arzulo ospetsura, ea ordu bat igarota.

Mordoan ziran iru edo lau aundi — lendik barruan izandakoak — beste guztiok sartu gintzazan arzulo ospetsu ortara, bertako jableak lagun, eta erakusle, genduzala.

### LEIZAN

Ni lendik be iru bidarrez egona naz arzulo orretan baiña, neska-mutil gaztetxu orreïn ziarrada zelangoa izango zan ikustearren sartu nintzan eta, ez jatan damutu; neuk uste neban baiño arreta geiagoz ikusi nebazan euzko gaztetxu orreik, erakusleak emoten situan azalpenai adi-adi.

Zenbat lan bikain egin litzaken neke asko barik gaztediaren artean! Danak urten eben poz-pozeik, ta gu bere bai zerbait on-garri egin dogulakuan.

### ARTEAGA'RA

Basondo'rarte, bertara dagon bixtabalean, zubitxu barri bat egiten egozalako ezin zan berebil aundia igon-eta, barriz Arteaga'raño oiñez etorri bear izan gintzazan, baiña, danok pozez beterik ikusi ta ikasi genduzan ikuskizunak gaitik.

### GERNIKA'N

Tamalez pizka bat berandu egin jakun eta, ezin izan jakezan Gernika'ko Batzar-etxea ta zugatz donea gaztetxu a<sup>y</sup>ei erakutsi, Ganguren Mendigoizale Taldeak nai eban lez.

Baiña, iñoz bere ez da berandu Bizka'i guztia ta Euskadi bera ikusi ta ezagutzeko-eta, Ganguren aleginduko da —dirauskuenez— Galdakano'ko gaztetxuei erakutsiten.

ALTUNA'TAR JOSU'K

## IBILALDIA

### BIZKAIA IKUSTEN

Esan bearrik ez ba'dago be sarritan esan da, Bizkaia zear ainbat baster eta inguru dirala ikusgarriak eta, beraz, ibiltaldi bikain bat egiñez ikusitea gai dabenak eta ikusi barik dabezana erakutsi bear dautsoguzanak. Neke asko barik eta txindi gitxi gaitik bertara elduteko eraz dagozanak gaiñera.

Beste idazlantxu baten esaten genduan lez, orretariko txangotxu asko egin litzakez gure euzko gaztetxuekatz, jolasean-jolasean zer ikusi ta zer ikasi daben toki edo baster asko ikeritu leikezalako, soinketa pizka bat egiñez, kirol garbiaren bitartez.

### EREÑO'RA

Epalla'ren azkenengo igandean, orretariko ibiltaldi bikain bat egin genduban Ganguren Mendigoizale Talde'ko gaztetxu-mordo aundi bat egaz: Berrogei ta amabosten bat, eta euren artean gure illo-batxuak bere bai, Gernika aldetik aurrera.

Orretarako, errian, Galdakano'n goizeko zortziretan urten gintzazan jente-berebil aundi baten, Zornotza ta Gernika zear Artea'ko Gautegiz'etik Ereño goi-erritxu garbira bederatziaik edo zerbait gerotxuago elduteko.

### GAZTELUA

Arteaga'tik igarokeran baiña, lendik bere geienak ikusita euken bertako gaztelua, zelan Bonaparte bakaldungaiak (prinzepak) bere emazte Montijo'tar Eujenia'ri egindakoa zan eta, abar azaldu eutzesan Batzordeko baten-batek. Bai-ta be, zelan Bonaparte ori euzkotarron adizkide zintzoa izanik, zenba lan eder egiña zan gure euzkera maitagarriaren alde ta abar.

### ATXURDIÑA

Bai-ta erakutsiten emon jaken gaztetxu orrei, zelan Ereño'ko arrobietan ateratzen zan aitz-uridin gorritzka ederra Itali'ra saltzen zan, geru bertatik, Itali'tik ludi guztira, ta beraz España'ra be, saltzeko Italia-ar aitz-uridin ospetsua ba-litzaken lez.

### KONDAIRA

Gallur ortan berean azaldu jaken gaztetxu orrei, zelan Bizkaia'n 1.404'gn. argitaldutako edesti baten esaten dan gaur-egun basatxonua dagon toki ortan berean gaztelu bat aurkitzen zala, baiña, Gernika'ko Batzarraaren aginduz egotzia izan zala, beren lekuan txadontxua, eleizatxua jasoteko.

Bai-ta eleizatxu ori 1.625'gn. arte bere Ereño'ko erria'ren txadona lez izan, inguru artako illak be bertan eortzi edo lurperatuaz.



### BASELEIZA

Ereño'tik igon genduban, orain apaindu-barri dan bidetik, Ereñotzar gal urrean dagon Goi-Gotzon Mikel deunaren basatxonu ondora.

Eta egiz arrituta geratu gintzazan ain ederto apainduta basaleizatxu ori ikusitean! Ereñotarrak eurak apaindu ei-dabe, aldamenean aterpe naiko zabal ederra sua egiteko ke-bide ta guzti daula.

### SANTIMAMIÑA

Gallurretik pizkat Ereño'ranta jatsi ta lardi edo piñu artetik bidea zear Sorkalde'tik mendia zerkatu ondoren, jatsi gintzazan Basondo edo Santimamiña'ko arzulo ospetsura, ea ordu bat igarota.

Mordoan ziran iru edo lau aundi — lendik barruan izandakoak — beste guztiok sartu gintzazan arzulo ospetsu ortara, bertako jableak lagun, eta erakusle, genduzala.

### LEIZAN

Ni lendik be iru bidarrez egona naz arzulo orretan baiña, neska-mutil gaztetxu orrean ziarrada zelango izango zan ikustearren sartu nintzan eta, ez jatan damutu; neuk uste neban baiño arreta geiagoz ikusi nebazan euzko gaztetxu orreik, erakusleak emoten situan azalpenai adi-adi.

Zenbat lan bikain egin litzaken neke asko barik gaztediaren artean! Danak urten eben poz-pozeik, ta gu bere bai zerbait on-garri egin dogulakuan.

### ARTEAGA'RA

Basondo'rarte, bertara dagon bitxabalean, zubitxu barri bat egiten egozalako ezin zan berebil aundia igon-eta, barriz Arteaga'raño oiñez etorri bear izan gintzazan, baiña, danok pozez beterik ikusi ta ikasi genduzan ikuskizunak gaitik.

### GERNIKA'N

Tamalez pizka bat berandu egin jakun eta, ezin izan jakezan Gernika'ko Batzar-etxea ta zugatz donea gaztetxu a'ei erakutsi, Ganguren Mendigoizale Taldeak nai eban lez.

Baiña, iñoz bere ez da berandu Bizkai guztia ta Euskadi bera ikusi ta ezagutzeko-eta, Ganguren aleginduko da —dirauskuenez— Galdakano'ko gaztetxuei erakutsiten.

ALTUNA'TAR JOSU'K

---

# GIZAUNDIAK

---

## TXURRUKA, ITSASGIZONA

### ABADEKI

*Motriku'n jaio zan Kosme Damian Txurruka, 1761'garrenean. Buru-argi ta biotz onekoa zala-ta, abadetzako aukeratu eben bere gurasoak, eta Burgos'era bialdu, artarako bear ziran ikasketak egiteko.*

*Oso gogoko egin jakozan Burgosko gongotzaiñari gure gaztearen ayurri ta gogo argia, eta berenean artu eban mutiltzat.*

*Ba-eban elizgizonak loba bat bere jauregian. Mariñel zan gaztea. Laster egin ziran lagun andi gazte biok. Eta sekulakoak esaten eutsoezan mariñelak abadekiari itsasoko gorabera ta bidaune arrigarrietaz.*

*A lango barri eraginkorrek entzunda, itsasoz maitemindu zan Txurruka; eta lengo abadetzako ikasketak itzirik, itsasoko bizimodura lotu zan.*

### MARIÑEL

*Cadiz ta Ferrol'eko eskoletan ikasi ebazan itsas-ikasketak. Eta «San Vicente» izeneko itsasontziaren agintari zan ogeitabat urtetarako. Bereala etorri jakon bere adore ta trebetasuna agerrerazoteko eretia.*

*Ingelesen eskuetan egoan Gibraltar artu bear ebla otu jakon Espaiñako erregeri. 220 kañoe andi ipiñi ebazan, orretarako, itsasgaiñean egurreko almadietan; eta berealako batean asi ziran dunba ta dunba ingelassen aurka.*

*Ingelesak ez lo bitartean, eta arin erantzun eutseen te gorretik beste ainbat kañoen su biziz. Eta oneen balak gureen almadiak zulatu; zulatu ta su-arrerazo... Ta or doaz anka-z-gora kañoe ta mariñelak.*

*Txurruka'k orduan bere ontziko txalupak askatu, ebazan ta or doa danen buru ta aurretik itsasora jausitakoen billa; ta euretako ainbat gaizkatu ebazan.*

### JAKINTSU

*Beste iru urte emon ebazan orren ondoren, ikasi ta ikasi: izarrizti, mekanika ta matematika ziran oraingo ikasgaiak. Laster lortu eban jakintsu-ospea; eta Magallanes itsas-atakako bazterrak arakatu ta ikertzera bialdu eban erregek, Cordoba itsasburuaren agindupean.*

*Ango zoko guztiak arakatuta, ataka biurri ta luzearren «mapa» zeatza egin ondoren, berbok jarri ebazan bertan: «Ez dot uste emendik aurrera iñor galdu leikenik, mapa oneri ondo begiratzan ba'dautso».*

*Ameriketako itsas-atlas egitera ekin eutson urrengo. Bera zan orain aginpide osoaren buru. Trinidad eugar-tean ipiñi eban bere abialeku.*

*Iru urtetan ibilli zan ugarte ta legorreko luze ta zabalerak neurtzen, areen tankerari antzematen, ta gaiñetikako izarren meridianu-neurriak artzen.*

*Eta bere azterketaren barri emon ebanean, sekulako txalok jo eutsoezan alde guztietan; ingeles ta prantziarrak jo, batez be.*

*Beste lan aipagarri bat argitaratu eban orren ondoren: «Instrucción sobre punterla balística» eritxona; eta Espaiñako itsasontzien ikas-liburu biurtu zan.*

### TRAFALGAR

*1805 'garrenean Trafalgar inguruetan, sekulako itsasontzi pilloa batu zan. 27 ontzi eukezan ingelesak; eta 33, alkartuta joiazan eta espaiñarrak.*

*Eta alkar zemaika luzaro egon ondoren, Urrillaren 21 eraso eutsoen alkarri. Villaneuve prantziar itsasgizona zan alkartuen buruzagi; Nelson itsaslarria, ingelesena. Agintari eskasa, Villaneuve ori; agintari trebea, Nelson andia.*

*Itsas-kolkoaren babesean, aiko-maiko luzaro egon ondoren, itsas zabalera bota ebazan, azkenik, Villaneuve baldarrak. Ori nai, ba, ingelesak, eta or asten dira dunba euren kañoe astunez.*

*Aizearen aurka joiazan geure ontziak; aizearen alde ingelesak. Villaneuve koitadoak orduan, bira emoteko agindua emon bere ontziari. Agindu okerragorik...! Biraka orretan gure ontziak nastu, alkar trabatu..., ta sekulako eretia emon ingelesten tirogaia...*

### ERIoTZA

*«San Juan Neponuceno» ontzian egoan Txurruka. A zan ontzirik ederrena; eta aren buru Txurruka, itsasgizonik trebeena... Aren aurka etorri ziran ingelsen sei ontzi andi. Tiro-gaietan maixu zan txurruka'k urreratzen itzi ez, eta luzatzen joian burrukea.*

*Il-zorian egoan, orduko, Nelson andia, bata txar batek jota. Eta aurrera eroian Txurruka'k bere eraso. Eta bere areriaok menderatuta eukazanean, ona kañoe-bata bat etorri, ta anka bat eroan eutson geure buruzagi adoretuari.*

*Zerrautsez beteriko barrika batean, balak ondatutako ankea sartu, ta aurrera eroian eraso. Eta bera ta bere ontzia jausi ziranean amaitu zan Trq algar'ko eraso zitala.*

*Ingelesak be esku artu eben aren illetetan, begirunez beterik. Eta auxe iñoan euren buruzagiak:*

*«Zergatik..., zergatik, itsasgaien jakintza ta aurrera-penerako aukeratua zan gizon andi au, eraso ilgarri onetara bota...?»*

**URKIOLA'K**

# EUSKERAZALEAK

Gure Alkarteak izen egokia aukeratu eban. EUSKERAZALEAK gara, naiz ta batzuk «euskalza-leak», izena egokiago litzakela esan.

Orregaitik, gure eginkizuna euskereari indarra emotea da, eta asieratik gogoia izan dan lez, erriko euskeratik, Bizkai'ko euskalkitik asita.

Elburu orretara geure indarrak zuzentzeko, ba-daukaguz geure ekiñaldiak. Betikoak batzuk, bereziak beste batzuk.

\* \* \*

Betiko ekiñaldien artean, Bilbo'tarrai batez be, euskerea irakastea da. Orretarako, urterik urtera ikasleak, eta geroago ta ugariago, izaten doguz.

Ez da gauza erreza izkuntza bat, edozein, ikastea, baiña ekiñaren ekiñez lortzen dan gauzea da. Eta ori egin dabe eta egiten dabe, gure ikas-geletan ainbeste ikaslek.

\* \* \*

Euskereari indarra emoteko, argitalpenen bidea be artu dogu: Ikas-liburuak, ikas-mintzak, antzerkiak, ipuiñak, irakurgaiak, alkar-izketak...

Kili-Kili'ren lana be antxiñatik begiko lez artu dau gure Alkarteak eta al izan dauan bestean lagundu dautso. Ume euskaldunak abedetzea, beti da lan garrantzitsua!

Eta, bazkideentzat lenengo eta beste edozeiñentzat gero, ZER aldizkari au argitaratzen dogu: Gai ariñak, euskera erreza, ta izki egokia dituala.

\* \* \*

Egin dogu euskal kultureari buruzko ikastaroren bat be, gure kultura aberatsaren barriak errian zabaltzeko. Eta ekiñaldi au jarraitu-bearrekoa zan.


\* \* \*

Eta, azkenez, egun oneitan esku-artean daroagun Ipuin-sariketea. Idazleak, idazle barriak sortu daitezazan biderik egokiena.

\* \* \*

Gipuzkoa'n eta Araba'n be sortu dira antzeko taldeak eta lanean diardue gogotsu. Guztion artean lortuko al dogu gure erriaren kultura ta euskerazaletasuna indartzea!

## GORRI 1'ºº ZENBAKIA



Erantzuna urrengo zenbakian

- |    |           |                   |
|----|-----------|-------------------|
| 11 | IZKI'koak | riqueza           |
| 12 | IZKI'koak | irracional        |
| 10 | IZKI'koak | concebir una idea |
|    |           | teléfono          |

**OAPRA** Trulin sarritan lana i asari artu doguz eta epai-maikoak urrengo illera arte sari-emotea luzatzeko eskatu dabe. Urrengo ZER'en agertuko dira epaia eta saria irabazi daben iru ipuiñak.

## EUSKERAZALEAK

- |   |           |                  |                     |               |
|---|-----------|------------------|---------------------|---------------|
| 9 | IZKI'koak | reloj            | hacer               | entero        |
|   |           |                  | negación            | comienzo      |
| 6 | IZKI'koak | visitar          | encima              | niño          |
|   |           | tijeras          | volando             |               |
|   |           | entender         |                     | 2             |
|   |           |                  |                     | IZKI'koak     |
| 5 | IZKI'koak | animal           | 3                   | IZKI'koak     |
|   |           | que tiene deuda  | animal              | delgado       |
|   |           | negar            | que tiene deuda     | suelo/bajo    |
|   |           | cercanía         | 3                   | IZKI'koak     |
|   |           | aprender         | cria                | yo            |
|   |           | espanto          | criatura            | tú            |
|   |           | calor fuerte     | turbio              | tú            |
|   |           | remedio/medicina | yo                  | casi/a ver/sí |
|   |           |                  | palabra             | ahí           |
|   |           |                  | ¿ dónde?            | no            |
|   |           |                  | idioma/lengua       | cerca/próximo |
|   |           |                  | buey                | sufijo        |
|   |           |                  | que indica posición | allí          |
|   |           |                  | quita               | vete          |
|   |           |                  |                     | tú            |



# ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia